# Bestelako Xedapenak

## INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

**3503**

EBAZPENA, 2010eko uztailaren 20koa, Turismoko zuzendariarena, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde ordezkariak eskuordetzen dituena zenbait eskumenez baliatzeko.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko ekainaren 30eko Aginduak turismo-enpresak modernizatzeko laguntza-programa arautzen du. Bada, agindu horrek Turismoko zuzendariari ematen dio programa horren araberako laguntza-eskabideak ebazteko eskumena.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko ekainaren 30eko Aginduaren bitartez, turismo-enpresak modernizatzen laguntzeko programa arautzen da; eta agindu horrek zenbait eskumen ematen dizkio Turismoko zuzendariari. Bada, administrazio-izapideak eragin handiagoz eta azkarrago egiteko, hala adierazten baitute teknika eta lurraldeen arloko arrazoiek, beharrezko ikusten da eskumen horiek eskuordetzea.

Era horretan, administrazio-jarduera artezten duten ekonomia-, azkartasun- eta eragingarritasun-printzipioekin egokiago ezkontzen den laguntza-programaren kudeaketa erdietsi nahi da.

Ondorioz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 13. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, honako hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa***.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko ekainaren 30eko Aginduaren bitartez, turismo-enpresak modernizatzen laguntzeko programa arautzen da; eta agindu horrek Turismoko zuzendariari esleitzen dio laguntza-eskabideak ebazteko eskumena. Bada, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde ordezkariei eskuordetzen zaie aipatu eskumena, hain justu ere bakoitzari bere eskumenpeko lurraldean.

***Bigarrena***.– Aipagai dugun arloari dagokionez, organo eskudun gisa, Turismoko zuzendariak ezarritako jarraibide eta irizpideen aurka egin gabe egiten da eskuordetze hau.

***Hirugarrena***.– Eskuordetze honen bitartez ematen diren ebazpenek adierazi egin beharko dute zirkuns-

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

**3503**

RESOLUCIÓN de 20 de julio de 2010, de la Directora de Turismo, por la que se delega en los Delegados Territoriales del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo el ejercicio de la competencia sobre determinadas materias.

La Orden de 30 de junio de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de apoyo a la modernización de empresas turísticas, atribuye a la Directora de Turismo la competencia para resolver las solicitudes de ayudas que al amparo de dicho programa se presenten.

Con la finalidad de agilizar y lograr una mayor eficacia en la tramitación administrativa y así aconsejarlo razones de índole técnica y territorial, resulta necesaria llevar a cabo una delegación en el ejercicio de las competencias que la citada Orden de 30 de junio de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de apoyo a la modernización de empresas turísticas, atribuye a la Directora de Turismo.

De este modo se pretende lograr una gestión del programa de ayudas más acorde con los principios de economía, celeridad y eficacia que gobiernan la actuación administrativa.

En su virtud, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 13 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común,

RESUELVO:

***Primero***.– Delegar en los Delegados Territoriales del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo el ejercicio, en sus respectivos ámbitos territoriales de la competencia para resolver las solicitudes de ayudas atribuida a la Directora de Turismo en la Orden de 30 de junio de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de apoyo a la modernización de empresas turísticas.

***Segundo***.– La presente Delegación se entiende sin perjuicio de las directrices y criterios que sobre la materia establezca la Directora de Turismo como Órgano competente.

***Tercero***.– Las resoluciones que se dicten en virtud de la presente delegación deberán indicar dicha cir-

tantzia hori, hain justu ere Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko argitalpen-eguna eta aipamen bat jasoaz; eta, bestalde, Turismoko Zuzendaritzak emandakotzat joko dira.

Aipatu ebazpenen aurka aurkeztutako administrazio-errekurtsoez arduratzea Merkataritza eta Turismoko sailburuordeari egokituko zaio, halaxe agintzen baita Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko ekainaren 30eko Aginduan, hau da, turismo-enpresak modernizatzen laguntzeko programa arautzen duenean (13.3 artikulua).

***Laugarrena***.– Turismo Zuzendaritzak edozein momentutan ezezta dezake eskuordetze hau, eta edozein espedienteren ardura beregana dezake.

***Bosgarrena***.– Merkataritza eta Turismoko sailburuordeak 2010eko ekitaldirako egindako deialdiri doazkion espedienteei aplikatuko zaio eskuordetzea hau, eta, ezeztatzen ez bada, hurrengo deialdiei ere aplikatuko zaie.

***Seigarrena***.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 20a.

Turismoko zuzendaria,
ISABEL MUELA LÓPEZ.

cunstancia, mediante la mención de la misma y de su fecha de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y se considerarán dictadas por la Dirección de Turismo.

El conocimiento de los recursos administrativos que, en su caso, procedan contra dichas resoluciones corresponderá a la Viceconsejera de Comercio y Turismo conforme establece el artículo 13.3 de la Orden de 30 de junio de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de apoyo a la modernización de empresas turísticas.

***Cuarto***.– En cualquier momento, la Dirección de Turismo podrá revocar la presente delegación, así como avocar el conocimiento de cualquier expediente.

***Quinto***.– La presente delegación será de aplicación a los expedientes correspondientes a la convocatoria de la Viceconsejera de Comercio y Turismo para el ejercicio 2010 y a los de convocatorias posteriores en tanto no se revoque la misma.

***Sexto***.– la presente Resolución surtirá efecto a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de julio de 2010.

La Directora de Turismo,
ISABEL MUELA LÓPEZ.